

Proiektuen Astea, ikasleen konpetentziak garatzeko tresna



Iritzia Hezkuntza proiektu komunitario eta irekia
Zertan gabiltza PenPal School Project egitasmoa



agenda

APIRILA

IKASTOLA OSOA
Proiektuen astea.

HAUR HEZKUNTZA

HH 4: Aquariumera bisita.
HH 5: Ekogunera bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1 eta LH2: Euskal Olinpiadak.
LH3, LH4, LH5 eta LH6: Oiangura Aranzadi zientzia elkartearekin.

MAIATZA

IRAKASLEAK

Lehen sorospenak ikastaroa.

LEHEN HEZKUNTZA

LH osoa: Dar-Darrekoen eskutik, kultur aniztasuna lantzeko ikuskizuna.
LH1 eta LH2: Basondora, Urdaibaiko fauna babeslekura.
LH3: Mediku-guraso adituak gelan.
LH4: DYAKoekin lehen sorospenak ikastaroa.
LH3 eta LH4: Patxi Zubizarretari omenaldia.
LH3 eta LH4: Sastarrain baserri eskolara hiru egunetarako.
LH5 eta LH6: Bertso jaialdia Herri Antzokian.
LH4, LH5 eta LH6: Hezkidetzak ikastaroa.
LH6: Iztueta baserrira bisita.

DBH

DBH 2-3-4: Mendimetroak.
DBH 4: Arrasateko Aita Menni-ra bisita (drogomenpeketasunari buruzko prebentzioa).
DBH 4: 'Gerta dakizuke' hitzaldia (auto istripuen prebentzioa).

EKAINA

IKASTOLA OSOA
Ikastolaren eguna.

LEHEN HEZKUNTZA

LH5 eta LH6: Zuhatzara hiru egunetarako.

DBHO

BATXI 2: Erasmus + Greziara irteera (ekainaren 25etik uztailaren 3ra).

Herriaren hezkuntza proiektu komunitario eta irekia

Gure ikastolak, azken urteotan, nahi ez zuen protagonismoa hartu du hedabideetan. Bere momentuan, erantzuna eman genuen, baina erreplikari joko horretan ez gara sartu.

Dena den, gure komunitateari aipatu beharreko aspektu batzuk hemen luzatu nahi ditugu.

Azken hamarkadan gure ikastolaren ikasle kopurua %28 igo den bitartean, kontzertatutako gelen portzentajea %11 besterik ez da igo. Horren ondorioz, gure gelen masifikazioa iritsi da, eta gure ikastolaren komunitateko kide guztiok ahalegin handia egiten ari gara; ratioz gain gaude gela eta maila askotan, Eskolatze Batzordetik edo beste bideetatik iristen zaizkigun ikasle GUZTIAK onartzeko eta aukera berdinean eskaintzeko ahalegin guztiak egiten ditugu; espazio arazoari aurre egiteko era guztietako ekimenak martxan jartzen ditugu; ikasleen ikaskuntza prozesua pertsonalizatzeko ditugun zailtasunei aurre egiteko irtenbide berritzaile eta sortzaileak ematen ahalegintzen ari gara... Baina gure ahalegin horiek aitortu gabe geratzeaz gain, gure komunitatearen aurkako erasoak jasan behar izan ditugu.

Ongi Etorri Eskolara izeneko ekimenaren lehen urte honetan, ikerketa egin dute eta gure datuak argitaratzeko inongo arazorik ez dugu, ez baitugu ezkutatzeko ezer.

Erdiko taulan ikus dezakezuen, eta ikerketaren egileek esan zigutenez, gure zerbakiak ez dira txantxa, are gehiago, horri aurre egiteko inongo laguntzarik ez dugula jasotzen aintzat hartuta. Harranta geratu ziren dugun baliabide eskasiarekin eta egoera horri aurre egiteko egiten dugunarekin eta erakusten dugun konpromisoarekin.

Nolanahi ere, oso garbi dugu guraso atzeritarrak dituzten ikasleen kopurua ez dagoela parekatuta gaur egun Ordizian dagoen aniztasun mailarekin. Desoreka egoera horren erantzule egin nahi izan gaituzten arren, guk konponbidearen bila urratsak egin ditugu, ez baitugu uste gure herriarentzat egoera hori ona denik. Baina desoreka hori txarra den bezala, herriaren ikuspegitik ere, oso txarra da herriko ikasle erdiak masifikazio egoera batean mantentzea, eta horixe da orain arte planteatzen duten irtenbide bakarra; egoera tamalgarri hori kroniko bihurtzea.

Segregazioaren arazoa ikastetxeetatik harago doa, herri mailako erroka bat da. Eta horren adibidea Ordiziako kirol klubetan, aisialdi taldeetan, musika eta dantza eskoletan... hezkuntzan bezala ikus daiteke, ez baita behar bezala islatzen jatorria kanpoan duten haur ordiziarren kopurua.

Ordizian publiko-privatu dikotomia gaunditzea beharrezkoa da Jakintza Ikastolarentzat, ikuspegi integralago eta anitzago bat

izateko, gaiari elkarrekin heldu ahal izateko eta ez bakoitzak beretik. Jakintza Ikastolaren komunitatea osatzen dugunok aniztasunean sinesten dugu, eta ez ditugu gure ikasleak inorengandik bereizi nahi.

Aitzitik, Ordizian dugun errealitatearekin eta gizartearen aniztasunarekin bat egin nahi dugu eta ikastolaren izaera komunitarioari eutsi eta indar handiagoa eman nahi diogu. Horretarako ari gara lanean, baina beste eragile batzuen inplikazioa ere eskatzen dugu, guk bakarrik ezin baitiogu aurre egin gizarte mailan planteatutako erroka honi.

MAILA	Jatorri immigrantea duen ikasleria (HH - LH)
2 urte	%25,65
3 urte	%20,00
4 urte	%22,22
5 urte	%15,38
HH osoa	%20,47
1. maila	%18,86
2. maila	%13,04
3. maila	%23,94
4. maila	%14,54
5. maila	%13,51
6. maila	%13,63
LH osoa	%16,25

UN PROYECTO COMUNITARIO Y ABIERTO. El incremento del alumnado y el de las aulas concertadas no ha sido paralelo en la última década; por ello, muchas aulas y cursos están masificados y por encima del ratio. El cuadro adjunto muestra los datos relativos al alumnado de procedencia inmigrante. Los datos no reflejan la pluralidad de Ordizia, pero Jakintza no es responsable de ese desequilibrio y está dando pasos para su resolución, aunque el problema es de todo el pueblo. Además, tan grave como ese desequilibrio es la masificación, una situación que se pretende cronificar. La ikastola asume la pluralidad de Ordizia y quiere mantener su carácter comunitario con la ayuda de otros agentes; el reto es de todos.

IDAZLEEN HARROBIA

Beasain 29. Idazlehiaketak baditu irabazleak, eta guk ere lortu ditugu saritxo batzuk. A kategorian, Maide Garmendiak bertsoen ataleko bigarren saria lortu du (*Nork bere etxeko aldaba*), eta Uxue Iruretagoienak aipamena (*Zahartzaroa*). Naia Solerrek ere aipamena erdietsi du ipuinen sailean (*Eta ondoren, galdu egiten dugu*). B kategoriarri dagokionez, bigarren sariak lortu dituzte Hodei Munduatek eta Garazi Irastorzak, bertsoetan eta poesian hurrenez hurren (*Hitza ez da alferrikako* eta *Zu*). Uxue Carnicerrek, berriz, aipamena eskuratu du hitz lauz (*Shaira*). Sari banaketa ekainaren 16an izango da, 12:00etan, Igartza Jauregian.

Ordiziako Udalak urtero bezala antolatu duen Mikroipuin lehiaketan, berriz, Mireia Aldasoro izan da garaile DBHokoen mailan (*1944ko martxoaren 23a*); eta Jaione Elosuak irabazi du bigarren saria DBH3 eta 4koen kategorian (*Ez zu baino gehiago, ezta zu baino gutxiago ere*). Komikien alorrari dagokionez DBH1 eta 2koen sailean Airi Soler eta Oinatz Oiarzabal izan dira irabazleak.

Ipuinak, bertsoak, poemak, komikiak... idazten dituzte gure ikasle artistek, eta ez halamoduz!

ZU

(Garazi Irastorza)

Nahi duzuna jantzi
eta mehatxua.

Etxera berandu iritsi
eta garrasia.

Ez duzula maite onartu
eta ukabilkada.

Eta ukabilkada gehiago.

Bukatzen ez diren ukabilkadak.

Ukabilkada horietatik
arrastoa.

Bat ez, asko.

Eta ez azalean bakarrik,
bihotzean ere bai.

Estaltzeko gauza ez izan
eta azkenean labankada.

Beste bat gehiago.

Beste bat gehiago
mundu honetatik at.

Beste bat gutxiago
mundu honetan.

Ez utzi inori
zu mendean hartzen.

Zuk menderatu zeure burua,
zuk,

zugandik, zuretzako,

zuregatik, zuregan,

beste inor jokoan sartu gabe.

Zu zarelako

ez beste inor.

Zu ere zerbait zarelako.

Zerbait baino gehiago.

Askoz gehiago.

Maitatu zarena,
urre zara eta.



Irailean noiz?

Amaitu orduko, hasierako datak lotuta. A ze komerial Irailean berriro ere argitaratuko ditugu, baina eskura izan ditzazuen, hementxe dituzue.

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 9tik 20ra Irailaren 23tik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsaldez
Lehen Hezkuntza	Irailaren 9tik 20ra Irailaren 23tik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsaldez
DBH	Irailaren 9an Irailaren 10etik 20ra Irailaren 23tik aurrera	Aurkezpena 08:30etik 14:30era Goiz eta arratsaldez
Batxilergoa	Irailaren 13an Irailaren 16tik aurrera	Aurkezpena Ohiko ordutegia

CANTERA DE ESCRITORES. Premios del 29º concurso de redacción de Beasain: categoría A, Maide Garmendia (bertso, 2º premio), Uxue Iruretagoiena (bertso, mención) y Naia Soler (cuento, mención); categoría B, Hodei Munduate (bertso, 2º premio), Garazi Irastorza (poesía, 2º premio) y Uxue Carnicer (prosa, mención). La entrega de premios tendrá lugar el 16 de junio, a las 12:00, en Igartza jauregia.

Concurso de microcuentos del Ayuntamiento de Ordizia: Mireia Aldasoro (1º premio de ESPO) y Jaione Elosua (2º premio, de 3º-4º ESO); Airi Soler y Oinatz Oiarzabal (ganadores del apartado de comics de 1º-2º ESO). **FECHAS DEL INICIO DEL CURSO EN SEPTIEMBRE.**

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ikasleen kompetentzien garapena ardatz

Betiko Kultur Astearen ordezkotako, Proiektuen Astea dinamikan murgildu da Jakintza Ikastolako komunitatea apirilean, HHTik Batxilergoko 1go mailaraino. Esperientzia aberasgarria izan da, eta balorazioa positiboa. Datorren ikasturtean hiruhileko oso batean lantzeko asmoa dago.



Project Based Learning (PBL, ingelesez) izenez mundu mailan ezaguna den lan egiteko metodologia hau da ez da atzo goizean sortutakoa. Ehun urtetik gorako bidea osatu du dagoeneko, eta ikasteko eta irakasteko era aktiboa hartzen du aintzat, ikaslea erdigunean jarriz eta metodologia anitzak erabiliz. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan (POI) era guztietako ekimen errealistik garatuz ikasten dute ikasleek, eta trebetasun marko zabal bat garatzen dute lortutako ezagutzak diziplinarteko testuinguru errealean aplikatuz.

Jakintza Ikastolak urteak daramatza lanketa mota hau sustatzen maila guztietan, nahiz eta kontziente izan lan egiteko era horrek ahalegin berezia eskatzen duela, antolaketa aldetik batez ere: baliabideen kudeaketa

eraginkor bat (giza baliabideena nahiz materialena), irakasleen arteko koordinazio handiagoa, elkarlanerako tarte handiagoak, metodologia aktibo ezberdinetan formazio sakonagoa... Abantailak handiak dira, eta ikastolaren apustuen artean praktikari pisu handiagoa ematea ere badagoenez, aurrerapausu sendo bat eman du aurten, antolaketa zurrunez sortzen dituzten oztupoak gaindituz.

Ohiko lan modua irauli

Helburu hori gidalerro hartuta, bukatzeaz den kurtsoko ikasturte Planean *Proiektuen Astea* antolatzea erabaki zuen ikastolak, urtero antolatu izan duen Kultur Astearen ordezkotako. Horretarako, baliabideen planifikazio zehatzagoa egin zen, eta antolaketan egin beharreko egokitzenak ere bai.

Era horretan, ikastola osoa, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoko 1. mailaraino, proiektuen munduan murgildu zen apirilean, Aste Santuko oporren aurretik. Bost eskola egunetan (maila bakoitzarentzat 30 ordu) ikastolaren ohiko funtzionamendua irauli egin zen Jakintzan, eta ekimen erraldoi horretan murgildu zen komunitate osoa, ikasle, irakasle nahiz guraso.

Era askotako proiektuak izan dira landutakoak –ikus 6. orrialdeko taula–, eta guztiek gizartean eragin zuzena eta positiboa izatea bilatu dute. Hainbat metodologia aktiboren bitartez, inguratzen dituen errealitatearekin lotura zuzena duten egoera desberdinak planteatu zaizkie ikasleei, eta horiek lantzen aritu dira.

Baina ikastolak ez du horretan

Arrazoiak

Zergatik egiten dugu lan egiteko era honen aldeko apustua? Arrazoi ugari dago, baina horra hor laburpen txiki bat:

- Euskal Curriculumak nahiz Curriculum ofizialak ikasleen kompetentzien garapena eskatzen digute eta hori ezinezkoa da metodologia tradizional batekin soilik.
- Ikasleentzat oso motibagarria da planteatutako erronkei aurre egitea.
- Ikasitakoaren erabilera praktiko eta errealak, ulermena eta ezagutza sakonagoak ahalbideratzen ditu.
- Emaizta akademiko hobeak ematen ditu eta porrot-tasa murrizten du.
- Bizitzarako hobeto prestatzen du, kompetentzia sozialak, akademikoak nahiz laboralak eskuratzeko aukera paregabea ematen baitu.
- Irakasleen nahiz ikasleen garapenerako eraginkorragoa da.
- Lan kooperatiboa eta talde-lana sustatzen du eta ikasleak horretan trebatzen dira.
- Ikasleen autoikaskuntza, autoerregulazioa, ikuspegi kritikoa... sustatzen ditu.
- Lidergorako, denboraren kudeaketarako, erabakiak hartzeko, komunikazio eraginkorra izateko, gatazken kudeaketarako... beharrezkoak diren trebetasunak garatzen ditu.
- ...



geratu nahi, eta irakasleentzat ahalegin gehigarri bat suposatuko duela jakitun izan arren, datorren ikasturtean ekimena zabaltzea eta 80-100 ordua eskaintzea pentsatzen ari da. Antolaketa ez litzateke aurtengoaren modukoa izango. Hiruhileko oso bat hartuko litzateke (8-10 aste), eta lehen orduetan ohiko lanketa egingo litzateke, baina egunaren azken bi orduetan, erronken lanketa gauzatuko litzateke.

Zubiak irekitzen HHn

Aparteko lana suposatu diela bai, baina aste horretan egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin «oso gustura» daude irakasleak. Haur Hezkuntzako etapa osoan, esaterako, kulturartekotasuna landu dute, eta atzerriko jatorria duten ikasleen gurasoen parte hartzea nabarmendu dute Miren Hernandez eta Maite Martinez irakasleek. Iaz 3 urteko gelan kulturartekotasunaren inguruko lanketa bat egin zuten, eta «denoi asko gustatu zitzaigunez», lanketa hori etapa guztira zabaltzea erabaki zuten. *Proiektuen Astea* baliatu zuten gai hori denen artean lantzeko. «Balorazio

MIREN HERNANDEZ (HHko irakaslea)

«Hitz egiteko bide bat ireki dugu hemengo eta hango familien artean. Batzuetan kosta egiten da, baina festa honekin lortu dugu hori horrela ez izatea»

MAITE MARTINEZ (HHko irakaslea)

«Ikusgarria izan zen familia etorkinen inplikazioa, ikustekoa zen zer gustuz, zer mimoz prestatu zituzten jaki guztiak. Oso-oso pozik sentitu ziren»

AINHITZE ETXEBERRIA (LHko 3. zikloko irakaslea)

«Orain arte ikustezinak ziren horiek ikusi egiten dituzte orain. Horretarako balio izan du landutako proiektuak ikasleei»

orokorra oso-oso positiboa izan da, oso gustura egon gara denok, bai irakasleak, ikasleak, familiak...», azaldu du Mirenek. Proiektuari bukaera emateko festa handi bat egin zuten - «hori ere bazen helburua», gehitu du Maitek-, eta familia migranteen inplikazioari aipamen berezia egin dio. «Herrialde desberdinetako dantzak egin genituen, eta gero merienda bat. Ikusgarria izan zen beraien inplikazioa, zer gustuz, zer mimoz prestatu zituzten jaki guztiak. Oso-oso pozik sentitu ziren».

Lanketa horrek komunitateari zer ekarpen egin dion galdetuta, erantzuna argi dute biek: «Hitz egiteko bide bat, zubi bat ireki dugu hemengo eta hango familien artean. Batzuetan kosta egin da, guk ere beti batzuegana jotzeko ohitura daukagu, baina festa honekin lortu dugu hori horrela ez izatea», esan du Mirenek.

LH 3. zikloan, antzera

Ainhitze Etxeberría eta Ainhoa Bosque irakasleak *Ni, zu, gu... denok!* proiektua lantzen aritu dira 5. eta 6. mailakoekin, eta zuzenean ez bada ere, lehen eta bigarren zikloan egin duten lana

Landutako gaiak

- HH: Kulturartekotasuna
- LH 1. zikloa: Parke berri bat ikastolarako
- LH 3an: Jolasen azokaren antolaketa
- LH 4an: Matematikaren azokaren antolaketa
- LH 3. zikloan: *Ni, zu, gu... denok!* Ordiziara munduko beste lurraldeetatik etorritakoak ezagutzeko eta gure artean eroso sentiarazteko.
- DBH 1ean: *Maite ditut maite gure bazterrak* Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako lagunei Goierri eta bertako ibilbideak, kultura, paisaiak, ohiturak... erakusteko.
- DBH 2an: *IKaTeBI* nortasun digitala kudeatzeko, sare sozialen erabilera arduratsua sustatzeko...
- DBH 3an: *Euskal balezaleak* LHko ikasleei museo interaktibo baten bidez garai bateko euskal arrantzaleen bizimodua erakustea.
- DBH 4an: *Poesia iraganaren egia*. Poesia, dantza, musika bideo eta hainbat osagai desberdinez osaturiko ikuskizun publiko batean, XX. mendean gertaturiko pasarte nagusienak erakustea.
- Batxilergo 1ean: *Jakintzako Olinpiadak*. Olinpiadak diseinatu eta antolatzeaz gain, edari isotoniko bat ekoiztea eta hura sartzeko ontzirik egokiena diseinatu eta ekoiztea.



ezagutu dituzte. «Lehen ziklokoek gure ikastolako patioa birdiseinatzeko erronka jarri zioten haien buruari. Herriko parke desberdinak ikusi, eta taldeka eta nahasian, diseinu propio bat egin eta maketa batzuk egin zituzten. Balorazio oso-oso ona da, harrigarria 1go eta 2. mailakoek horrelako ideiak edukitzea» adierazi du Ainitzek.

Ainhoak 4. mailakoen lanari erreparatu dio: «Matematikarekin lotutako jolasak sortu dituztela ikusi dut, eta material asko sortu dituzte».

Ordiziara munduko beste lurraldeetatik etorritako eta gure artean eroso sentiarazteko proiektua landu dute bi irakasleek 3. zikloan. Ainhitzek azaldu ditu nondik norakoak: «Lehenengo fasea izan zen ikasleak kontzientziaztea, bigarrena lanketa adimen ezberdinka, eta hirugarrena galdera nagusiari erantzuna ematea». Irakasleek hala erabakita, herrialde desberdinetako postuekin azoka bat egin zuten, eta Ordizia Kolorekoekin harremanetan jarrita, hitzaldi bat ere antolatuz zuten Errumania, Ekuador, Nepal eta Pakistango lagun banarekin. «Ikasleekin egindako hausnarketan konturatu dira zenbat ikasi duten, eta zer

AINHOA BOSQUE (LHko 3. zikloko irakaslea)

«Ikasleekin egindako hausnarketan ikusi dute zenbat ikasi duten, eta zer emaitza ona izan duen lanketak. Enpatia landu da»

MIREN MARTIN (DBH1eko irakaslea)

«Ikasleek lortu behar izan dute informazio guztia, eta konturatu dira dena ez dagoela Interneten; udaletxeetara deitzen ikasi dute, turismo bulegoetara...»

MIREN GONZALEZ (DBH1eko irakaslea)

«Anekdotak ere izan dira. Ataungo Barandiaran Museora, esaterako, doan joatea lortu zuten ikasleek. Saiatu egin ziren, eta lortu zuten»

emaitza ona izan duen lanketa horrek. Enpatia landu da», zehaztu du Ainhoak. «Eta orain arte ikusezinak ziren horiek orain ikusi egiten dituzte», amaitu du Ainhitzek.

Turismo gidari izateko lana

Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako Goierri ezagutzera ematea izan zen DBH1ekoan zeregina.

Ikasleak hamabost taldetan banatu, eta beste horrenbeste ibilbide sortu behar zituzten. Miren Martin eta Miren Gonzalez irakasleek, besteak beste, lagundu zieten asteko plana egiten, eta proiektu bukaerako lana turismo gida bat egitea zen. «Beraiek lortu behar zuten informazio guztia, eta konturatu dira dena ez dagoela Interneten, udaletxeetara deitzen ikasi dute, turismo bulegoetara...», gogoratu du Martinek. Gonzalezek honako bitxikeria aipatu du. «Barandiaran museora doan joatea lortu zuten ikasleek, saiatu ziren eta lortu zuten». Familien partaidetza ere eskertu dute, 10 boluntario lortu baitzituzten proiektua gauzatzeko.

Proiektu gehiago ere izan dira, baina denentzako tokirik ez erreportaje honetan. Hurrengo urtean izango dira gehiago, ikasleen konpetentzien garapenerako aberasgarri baitira.



El aprendizaje basado en la práctica

La metodología de trabajo Project Based Learning (Aprendizaje Basado en Proyectos; ABP en español y PBL en inglés) tiene un recorrido de más de 100 años en todo el mundo. El ABP promueve un modo activo de aprendizaje y enseñanza, ubicando al alumno siempre en el centro y utilizando metodología diversa. El alumno aprende a través de proyectos realistas y desarrolla un amplio marco de habilidades al aplicar lo aprendido en contextos interdisciplinarios reales.

Jakintza lleva muchos años aplicando este método en todos los cursos a pesar del esfuerzo extra que ello conlleva, sobre todo a nivel organizativo: gestión eficiente de los recursos (humanos y materiales), mayor coordinación entre profesores, más espacios para la colaboración, formación en metodologías activas... Pero las ventajas son mayores y la ikastola ha apostado por conceder mayor valor a la práctica.

Por eso, este año la tradicional Semana Cultural ha sido sustituida por la Semana de los Proyectos, que tuvo lugar antes de vacaciones de Semana Santa con la participación de todos los alumnos y profesores del centro, desde Infantil hasta 1º de Bachillerato, y los padres. Fueron 5 días lectivos (30 horas en cada curso) en los que el funcionamiento habitual de la ikastola dio un vuelco. Esos días se desarrollaron proyectos de muy distinta índole (ver el cuadro de la pag. 6), que tenían el objetivo común de influir directa y positivamente en la sociedad.

Algunos de los proyectos

En Educación infantil han tratado el tema de la interculturalidad y las profesoras Miren Hernandez y Maite Martinez han destacado la participación de las familias de los alumnos de procedencia extranjera. El proyecto finalizó con una gran fiesta en la que se bailaron danzas y se probaron platos típicos de otras culturas y que sirvió «para tender un puente entre las familias de aquí y de allí».

Las profesoras Ainhitze Etxeberria y Ainhoa Bosque han desarrollado el proyecto *Tu, yo, nosotros... todos!* en 5º 6º de Primaria y han seguido de cerca los trabajos del primer y segundo ciclo. Los de primero han tenido que rediseñar el patio de la ikastola, con maquetas incluidas, y los alumnos de 4º curso han creado juegos relacionados con las matemáticas. En el tercer ciclo han desarrollado un proyecto para recibir a los que llegan a Ordizia de otros lugares del mundo y para ayudarles a sentirse cómodos aquí. Para ello, montaron un mercado con puestos de distintos países y, en colaboración con Ordizia Kolore, organizaron una conferencia con personas de Rumanía, Ecuador, Nepal y Pakistán. Todo ello les ha servido «para trabajar la empatía» y «para dar visibilidad a esas personas que hasta ahora eran invisibles para ellos», según comenta Ainhitze.

El proyecto de 1º de DBH ha consistido en dar a conocer Goierri a los alumnos de la ikastola Paz de Ziganda de Aurrabadi, para lo que han tenido que diseñar 15 recorridos diferentes por la comarca. y como trabajo final, elaborar una guía turística de la comarca. Les han ayudado las profesoras Miren Martin y Miren Gonzalez, aunque han sido los alumnos los que han recopilado toda la información, bien en Internet o bien en los ayuntamientos o en las oficinas de turismo. Como curiosidad, Gonzalez comenta que como premio a su trabajo, los alumnos consiguieron ir al museo Barandiaran sin pagar entrada. También cabe señalar la participación de los familiares, ya que 10 voluntarios se sumaron al proyecto.

Visto el éxito de esta Semana de los Proyectos, el próximo curso esta actividad se ampliará a 80-100 horas, eso sí, repartidas a lo largo de un trimestre (8-10 semanas): las primeras horas las clases serán las habituales, pero las dos últimas estarán destinadas a los proyectos.

HHko ALBISTEAK

IÑAKI AZURMENDI ETA LH6KO IKASLEEN ERAKUSTALDIA

3 eta 4 urteko ikasleak oraingo honetan baserria izan dute gaitzat. Hori aitzakia hartuta 4 urtekoak gure kulturaren esanguratsuak diren proben inguruan jardun dute. Bide batez, ikastolan herri kirolean txapeldun geratu zaizkigun LHko ikasleak gonbidatu nahi izan ditugu erakustaldia egitera. Honez gain, Iñaki Azurmendi aizkolariak ere bat egin du gure festarekin eta aizkora saio ederra eskaini digu arratsalde polita igaroz giro ezin hobean!



3 URTEKO GURASOAK BERRIRO ERE PROIEKTUAN INPLIKATUZ

Gela girotu nahian guztiari bueltatxo eman eta 3 urteko espazioa baserri bilakatu dute. Honetarako gurasoei partehartzea eskatu zaie; dekorazioan, jolasak eta jarduera desberdinak prestatzen eta auzolanean guztion artean Jakintza Ikastolako espazioa eraldatu dute benetako baserri itxura emanez. Mila esker beste behin ere gurekin elkarlanean aritzeagatik gure gelak baserri, ukiulu edota oilategi bihurtuz, eta apurtxo horrekin gure txikitxoaren ilusio, nahi eta esperientziak sustatuz, guztiona, denona eginez! Aupa zuek!



UDABERRIKO JAIALDIA

Ikasturte amaiera ganean dugu, eta beti bezala musika eta dantza giroan amaiera ederra ematea gustatzen zaigunez, aurten ere udaberriko jaialdia prestatu dute senitarteko eta lagunentzat gogoz eta ilusioz HHko ikasleek!



HHKO ZAHARRENAK LHRA BISITA

Aurtengo ikasturtean ikastolako nagusienak izan eta sentitu arren, datorren ikasturtean gazteenak izango dira Jakintza Ikastolako San Inazio eraikinean. Hori dela eta, Aste Santu aurretik egin zuten lehen kontaktua bertara bisita eginez, eta orain berriro joango dira LHko gelak, laguntxo berriak eta irakasleekin ere lehen hartu emana izatera. Animo neska-mutilak eta bidaia on bizitzako etapa berrian gertutik sentitu eta maitatu zaituzteten HHko irakasleen partez!

– **NOTICIAS DE EDUCACIÓN INFANTIL.** Los alumnos de 3-4 años han tratado el tema del caserío y han podido conocer los deportes relacionados con el mismo con la ayuda del grupo de 6º de Primaria ganador del campeonato de herri kirolak de la ikastola y del aizkolari Iñaki Azurmendi, que les han ofrecido una exhibición. – **Los padres de los alumnos de 3 años se han implicado en el proyecto del caserío,** y han ayudado en la decoración del aula para convertirla en un pequeño caserío y en la organización de juegos y otras actividades. – **Los alumnos de Infantil han preparado con mimo el festival de primavera** para ofrecérselo a sus familiares y amigos al finalizar el curso. – Los que este curso han sido los mayores de la ikastola, **el próximo curso serán los más pequeños del edificio de San Inazio.** Por eso, antes de Semana Santa visitaron las instalaciones para conocerlas y ahora volverán otra vez para familiarizarse con las aulas de Primaria. Los profesores de Infantil les deseamos suerte en esta nueva etapa.

ORDIZIAKO MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN ENTZUNALDI PEDAGOGIKOA

Maiatzaren 24an Ordiziako Musika Eskolako bandaren entzunaldi pedagogikoaz gozatzeko aukera izan genuen Haur Hezkuntzako eraikinean HHko eta LHko ikasle eta irakasleek. Bandako zuzendari Edorta De Pedrok bertan dauden haizezko (saxofoi, klarinete, tronpeta, tronboi...) eta perkusiozko (bonboa, txindatak, kaxa) tresnen aurkezpen labur bat egin zigun, eta ondoren, hainbat abesti entzuteko aukera izan genuen. Besteak beste, *Pompo and Circunstance*, *The Lion Sleeps Tonight*, *Don't Stop Believin*, *Furra-furra* eta *Beti Eskamak Kentzen*. Ekitaldiari bukaera eman genion hain gurea den kalejira batean parte hartuz.

Mila esker Ordiziako Musika Eskolako ikasle eta irakasleei.



ZETARRAK GURE GELAN

Jakin badakigu naturak badituela bere sekretuak, eta gertutik erreparatzen diogunean konturatzen gara horretaz. Izan ere, zeinek esan behar zien duela bi hilabete lehenengo eta bigarren mailako ikasleei, marugatze (morera) hosto artean zeuden zetar nimiño haietatik zeta-tximeletak sortu behar zirela?

Zetarra oso-oso jalea da eta marugatze hostoak etengabe jaten ditu, gau eta egun. Hori dela eta oso azkar hazten da eta zeta-hariz egiten du bere eskola, 300 eta 900 metro bitarteko zeta hari bakar batez. Harrigarria benetan!

Gure ikasleak goizean gelara sartu orduko, zetarrei begira jartzen dira; zenbat hosto jan dituzten, zenbat hazi diren, eskola nola egiten

hasi diren, eta orain, oskoletik tximeletak noiz atera zain daude, hain gutxi falta zaie!



– El 24 de mayo la Banda de Musika Eskola de Ordizia ofreció una audición pedagógica a los alumnos y profesores de Infantil y Primaria. Su director Edorta de Pedro les presentó los instrumentos de viento (saxofón, clarinete, trompeta, trombón...) y de percusión (bombo, platillos, caja) y a continuación los músicos interpretaron varias canciones. – Hace dos meses poco imaginaban los alumnos de 1º y 2º de Primaria que los gusanos de seda escondidos entre las hojas de morera se iban a convertir en mariposas. Cada mañana vigilaban su evolución: qué comían, cuánto crecían, como elaboraban el capullo de seda... Ahora están a la espera de que las mariposas salgan de los capullos. ¡Falta muy poco!

MENDIMETROETAN IKASTOLA

Mendizaletasuna erabat txertatua egon da euskaldunekin, eta ildo horretan sortu zen Mendimetroak ekimena. Ikastola guztiek bere herriko tontor edo toki ezagun baterako ibilbidea egin dute. Jakintza ikastolako DBH 2, 3 eta 4ko ikasleek Lazkaomendira ibilaldi ederra egin zuten aparteko eguraldiak lagunduta. Ospakizunaren helburua, lehiatik urrun, kirola beste era batera egiteko proposamen bat da. Ekimenari buruzko argibide gehiago www.mendimetroak.eus webgunean daude.



PENPAL SCHOOLS

Ingelesak garrantzi handia du gizartearen, eta gure ikastolan ere nabaritu da hori. Kultur aniztasuna geroz eta gehiago entzuten den hitza da: gure artean geroz eta kultura gehiago dugu, eta ondorioz, geroz eta hizkuntza gehiago.

Horren guztiaren jakitun izanik, gure ikastolak bide bat aurkitu du ingelesaren erabileran harago joateko: **PenPal School Project!**


4 urtetik aurrera hasten dira gure ikasleak ingelesa lantzen, baina honen erabilera gelako esparruan geratzen da, oro har. Hori ikusirik, ingelesaren erabilerari bultzadaxoa ematea beharrezkotzat jo dugu; alde batetik ingelesak leku gehiago izateko gure egunerokoa eta bestetik, ikasleak motibatzeke.

Beraz, gure ikastola KIVA proiektuan sartu zenean, beste herrialde bateko ikastetxe batekin harremanetan jartzeko eta proiektu bat elkarrekin egiteko proposamena luzatu ziguten. Hori dela eta, berehala erabaki genuen aukera paregabea izango litzatekeela PenPal School Project proiektua martxan jartzea. Proiektu honek Finlandiako eskola batekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du, eta bide batez, harremanak ingelesez egiten direnez, hizkuntza hori lantzeko bidea ere ematen du.

Proiektuak urtebeteko iraupena du eta 6. mailan egiten da. Denbora horretan harreman estuak sortzen dira ikasleen eta irakasleen artean, eta denok gustura gaude. Ekintza ugari egin ditugu, eta haurrek oso motibatuta ikusi ditugu. Ikasleek e-mailak eta eskutitzak idatzi dituzte, eta bertan errezetak trukatu ditugu, elikagai ohikoena dastatzeko aukera ere izan dugu, eta hango eta hemengo bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera paregabea izan da. Ikasleek bide batez, beraien zaletasunak, ametsak eta jakin-minak trukatu dituzte.

Eta ikasturteari amaiera emateko eta lagunak agurtzeko, Skype bat ere egin dute ikasleek. Esan beharrik ez dago, oso esperientzia aberasgarria izan dela.

Beraz, ingelesa zertarako? Ba horretarakoxe, beste kultura bateko berdin arteko harremanak sortzeko eta nola ez, lagun berriak egiteko!



– Jakintza también ha participado en la iniciativa **Mendimetroak**. Todas las ikastolas debían subir a la cima de un monte cercano. Los alumnos de 2º, 3º y 4º de ESO eligieron Lazkaomendi, a donde realizaron una salida acompañados por un tiempo espléndido. Lejos de la competición, Mendimetroak es una propuesta diferente para hacer deporte. Más información en www.mendimetroak.eus.– El proyecto **PenPal School Project!** nos ha ayudado a dar un impulso al uso del inglés, que en Jakintza se imparte a partir de los 4 años. PenPal llegó a Jakintza a través del proyecto KIVA, que nos puso en contacto con una escuela de Finlandia. El proyecto tiene una duración de un año y se está desarrollando en 6º de Primaria. Los alumnos y profesores de ambos centros están en contacto permanente y siempre utilizan el inglés para comunicarse. Unos y otros han intercambiado cartas y e-mails y también recetas y productos típicos. Ha sido la ocasión perfecta para conocer otra cultura y hacer nuevos amigos, y para practicar inglés.

ETIOPIA PROIEKTUA



DBH4ko ikasleek bultzatutako Etiopiaren aldeko kanpainak sekulako arrakasta izan du. Zorionez gauza asko jaso genituen, bertara eraman ahal duguna baino gehiago. Beraz, eramateko aukera ez genuen gauzekin merkatu txiki bat egitea erabaki genuen. Merkatu txikiaren arrakasta ere handia izan da: 1.350 euro lortu dira. Azpimarratu beharra dago, DBH4ko ikasleek bere saskia zozkatzea erabaki zutela Etiopiaren alde. Txalotzekoa benetan beraien borondate ona!!!

Beraz, jaso diren gauza guztiak honela banatu dira:

- Umeentzako arropa: Addis Abebatik gertu dagoen Walmara herriko ABAY elkarteari eman zaio.
- Jostailuak eta eskola materiala: Hegoaldeko Omo ibaiaren bailarako DASSANECH eta KARO tribuen eskoletan, eta iparraldeko Danakil basamortuko AFAR tribuaren eskola batean.
- Dirua: hiru proiektu desberdinetan banatu da modu berean, hau da, 450na euro proiektuko. 1) Angel Olaran misiolari hernaniarrak bideratzen duen ETIOPIA UTOPIA proiektua. 2) ABAY proiektuari. 3) Mekele hirian, tolosar batek bultzatzen duen TXIRRINDULARI PROIEKTU SOLIDARIOA.

Azkenik, merkatuan saldu ez diren gauzak eta eraman ezin ditugunak, TOLOSALDEA SAHARAREKIN elkarteak TINDUFeko kanpalekuetara eramango ditu.

Berrero ere, mila esker animatu zareten guztioi!

BOOK TRAILER LEHIAKETA

Aurtengo ikasturtean, gure DBH 2ko ikasleek Galtzagorri Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Liburu Gaztea egitasmoaren barruan burutzen duen Book Trailer Lehiaketan parte hartu dute eta saria irabazi dute. Aurtengo lehiaketa arrakastatsua izan da parte-hartzeari dagokionez. Guztira 3.112 ikasle inguru izan dira lehiaketan aurkeztu direnak, iaz baino 200 bat gehiago, eta 279 book trailer aurkeztu dira. Norbanakoen kategorian, Sara Garcia Rubio izan da publikoaren saria jaso duena, eta Markel Leunda bigarren lekuan geratu da. Maiatzaren 17an Tabakaleran izan ginen lehiaketaren sari-banaketa ekitaldian. Sara Garcia liburu eta diskotan gastatzeko 200 euroko opari txartela jaso zuen. Zorionak Sara eta Markel!



– La **campaña a favor de Etiopía** de 4º de ESO ha tenido mucho éxito. Se ha recogido ropa infantil y juguetes, el mercadillo ha dado 1.350 euros de beneficios y se ha sorteado una cesta. La ropa se ha entregado a la asociación Abay que trabaja en Walmara, cerca de la capital. Los juguetes se han repartido entre las escuelas de las tribus Sassenech y Karo del valle de Omo, en el sur y en la de la de tribu Agar del desierto Danakil del norte. El dinero se ha repartido en tres proyectos, 450 euros para cada uno: proyecto Etiopía Utopía del misionero Angel Olaran, proyecto Abay y proyecto ciclista solidario de la ciudad de Mekele. Lo que no se vendió en el mercadillo se ha entregado a la asociación Tolosaldea Sahararekin, para llevarlo a los campamentos del Tindouff – Los alumnos de 2º de ESO han participado en el **concurso de book trailers** organizado por Galtzagorri Elkarte eta la Diputación Foral de Gipuzkoa. En la categoría individual, Sara Garcia Rubio ha ganado el premio del público y Markel Leunda ha sido segundo.



OROITZAPENAK

Uga taldearen abesti bat hautatu genuen, eta zapia eskuan harturik igo ginen taula gainera. Asteak generamatzen koregrafia prestatzen, denok pauso bera aldi berean egiten saiatzen kultur asteen gure maisulana erakusteko. Batzuk lehenengo ilaran jartzeko borrokatu ziren; beste batzuek, berriz, ahalik eta ezkutuen jarri nahi genuen. Batzuek izugarri gozatu zuten oholtza gainean dantzan, beste batzuek handik jaistean. Ez da ez dantzari, ez abeslari ospetsurik atera taula hartatik; baina zein ondo pasatzen genuen egun handirako dantza saioak egiten, eta zer ondo pasatzen dugun orain une horietaz gogogorutzen!


Maitane Satrustegi

Argazkian:

Ezkerrean. Atzetik aurrera: Maitane Gonzalez, Oihane Huesa, Saioa Esnaola, Maialen Aldasoro eta Jone Garmendia.

Erdian: Ainhoa Imaz.

Eskubian. Atzetik aurrera: Maitane Satrustegi, Julen De La Cuesta, Mikel Garmendia eta Aratz Garmendia.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
Tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

